



2021/2022 denboraldia

26. ZIRKULARRA

OHOREZKO INFANTIL NESKEN LIGA TXAPELKETA

Gipuzkoako Futbol Federazioaren laguntza teknikoarekin eta jokalarien heziketa prozesuaren kalitatearen maila igotzeko interesa duen Real Sociedad klubaren lankidetzarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiak, berari dagokion esparruan, Gipuzkoako Eskola Kiroleko Jardueren Programaren barnean dagoen Ohorezko Infantil Nesken lehiaketa antolatzen du, emakumezkoen futboleko errendimendurako joera handiena duten klubak nahia asetzuz.

1. KLUB OARTEIDEAK

1. MULTZOA

- 1 MARIÑO C.D.
- 2 OIARTZUN K.E.
- 3 TOURING KE
- 4 AÑORGA K.K.E. "B"
- 5 ANTIGUOKO K.E. "B"
- 6 INTXAURDI K.E.
- 7 MARTUTENE K.E.
- 8 ZARAUTZ K.E. "B"

2. MULTZOA

- 1 EIBAR S.A.D.
- 2 GOIERRI GORRI F.K.
- 3 TOLOSA C.F.
- 4 ZARAUTZ K.E. "A"
- 5 ZUMAIAKO F.T.
- 6 ANTIGUOKO K.E. "A"
- 7 AÑORGA K.K.E. "A"

2. LEHIAKETA SISTEMA

Ohorezko Infantil Nesken liga txapelketa **15 taldek** osatzen dute bi multzotan banatuta, bata 8 taldekoa eta bestea 7. Bi fasetan jokatuko da: puntuen bidez eta bi itzulietara (14 jardunaldi), eta Euskadiko Futbol Federazioaren Araudi Orokorrean jasotako xedapenak jarraituko dira.

A. Txapeldun Fasea:



Multzo bakoitzeko 3 lehenak eta laugarren postuko 2 onenak (8 talde guztira)–jokatutako partidetan lortutako puntuen arabera – bi itzulira (14 jardunaldi) jokatuko dute fase hau.

Kategoriako txapelduna Gipuzkoako futbolaren ordezkari gisa joango da Euskadiko Errendimenduzko Ohorezko Infantil Nesken txapelketara.

B.Gipuzkoako Kopa:

Gainontzeko taldeek Gipuzkoako Kopa jokatuko dute.

3.JOKALARIAK:

2008 eta 2009 urteetan jaiotako jokalaria har dezakete parte txapelketa honetan.

4.LIZENTZIAK:

Eskola Kirolaren Programan jasotako lehiaketak direnez, parte-hartzaileek bi erakundeen logotipoak izango dituen eskola-lizentzia izango dute, eta federazioan bertan bideratuko dira, lehiaketa hasi aurretik “Kirol lizentziak” sistemaren bidez, azterketa medikua eta mutualitateko alta egiaztatu ondoren.

Talde bakoitzak **gehienez 16 lizentzia** izango ditu. Hala ere, denboraldian zehar dauden altak eta bajak konpentsa daitezke.

Laguntza-estaldura:

Lehiaketa eskolarra izan arren, **Espainiako Futbolarien Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitatean** afiliatuta egon behar da.

Azterketa medikuak:

Lizentzia tramitatu aurretik, **kirolariak futboleko aritzeko gaitasuna duela egiaztatu beharko da.**

5.ZELAIKO JOKALARI KOPURUA

- Gehienez 8 jokalaria.
- Gutxienez 6 jokalaria.



Gutxieneko jokalaria kopurua ez bada betetzen, talde horri partida galdutzat emango zaio, nahiz eta partida jokatu.

6.IRAUPENA ETA ALDAKETAK

Partidek 60 minutuko iraupena izango dute, 20 minutuko 3 zatiekin, eta azken zatian aldaketak libreak izango dira. 20 minutuko bigarren zatian, lehengo zatian parte hartu ez duten jokalariek parte hartu beharko dute. **Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partidua galdutzat emango da.**

7.DEIALDIA

Batzar Nagusian heldutako akordioaren arabera, **taldea osatzen duten jokalarien %80k deialdian eta partiduan bertan egon beharko du. Arau hau betetzen ez bada eta aurkako taldearen aurretiko salaketa bat baldin badago, partida galdutzat emango da, salatuta izan den klubak aurkezten dituen ezinbesteko kausak behar bezala justifikatuak eta frogatuak izan ezean.**

8.BALLOIA

Baloia 4 zenbakikoa da eta ez da areto futboleko baloirik onartuko.

9.ORDUTEGIA

Klub antolatzaileek posible izango dute beraien partida larunbat goizera edo arratsaldera aurreratzea aurkakoaren baimenik gabe.

10.ZELAIAREN ETA ATEEN NEURIAK

Zabalean jokatuko da, eta luzera eta zabalera zelai bakoitzak dituen neurrien arabera izango dira. Dena den, gutxi gorabehera ondorengo neurriak izango dira: jokalekua 65 eta 50 metro arteko luzera eta 45 eta 30 metro arteko zabalera dituen laukizuzena izango da. Ateak 6 (langeta) x 2 (zutoina) izango dira. Neurri hauek kontutan izanda, jokalekua, salbuespen gisa, zelaiaren luzera aprobeztatuz marraztu daitezke.

11.PENALTI EREMUA



Ateko marrarekiko bi lerro elkarzutak margotuko dira, ateko zutoin bakoitzetik 9 metro tara. Aipatutako lerroak zelai jokoaren barnealdera 9 metro sartuko dira eta ateko marrarekiko lerro paralelo batekin elkartuko dira. Lerro hauek eta ateko lerroak egiten duten eremua, penalti eremua izango da.

12.PENALTI PUNTUA


Penalti puntua 9 metro tara eta erdian markatuko da.

13.ATE EREMUA

Penalti eremua bezala, baina ateko zutoin bakoitzetik 3 metro tara.

14.JOKOZ KANPOKO AREA

Jokoz kanpoko area ateko marratik 13 metrora ezarriko da.



15.GAINONTZEKO ARAUAK



Gainontzeko arauak futbol hamaikako lehiaketetarako ezarritako arau berdinak izango dira.

16.EPAILEAK

Txapelketa honetako partidak Gipuzkoako Futbol-Arbitroen Biltzar Teknikoko epaileek zuzenduko dituzte.

17.OHOREZKO INFANTILEN PARTE HARTZEA KADETE MAILAN

"Azken urteko ohorezko infantilek kadete mailan izena eman eta parte hartu ahal izango dute, honako irizpide hauek bete ondoren:

- Gipuzkoako Foru Aldundiari egindako eskaera arrazoitua, proposatutako jokalarien zerrenda zehatzarekin.
- Foru Erakundearen baimena, eskolarretako infantilek kadete mailako lehiaketetan parte har dezaten.
- Azterketa medikuaren ziurtagiria aurkeztea.
- Mutualitatean afiliatuta egotea.
- Dagokion federazio-lizentzia tramitatzea

18.PARTE HARTZE BIKOITZAREN ARAUZKO ONDORIOAK

Aurreko puntuan deskribatutako baldintzak beteta, infantilen azken urteko jokalariek goragoko hurrengo kategorian parte hartu ahal izango dute, baina **infantilen taldean lerrotatze desegokiaren okerra egingo da, asteburuan bi partidatan parte hartzen badute, nahiz eta egun desberdinetan egin.**

19.DIZIPLINA ARAUDIA

Eskola-kiroleko lehiaketen diziplina-araubideari buruzko uztailaren 23ko 391/2013 DEKRETUAN zehaztutakoarekin bat etorritik, diziplina-eskubidea honela gauzatzen da:

- a) Lehenik eta behin, lehiaketen antolaketaz arduratzen den kirol-federazioko diziplina-batzordeari.



b) Bigarrenik, Kirol Justiziako Euskal Batzordeari; bere erabakiak administrazio-bidearekin amaituko du, eta aurkako errekurtsua aurkeztu ahal izango da, aplikatu beharreko jurisdikzio-arauen arabera.

20.COVID-AREN ARAUTEGIA ETA PROTOKOLOA

Covid-19ari buruzko ezohiko araudia Gipuzkoako Futbol Federazioaren 10. zirkularrean jasota dago. Halaber, ahal den neurrian, SARS-COV-2 (COVID-19) SAIHESTEKO OSASUNAREN BABESARI ETA PREBENTZIOARI BURUZKO PROTOKOLOA BETETZEA gomendatzen da Euskadiko Futbol Federakundearen ENTRENAMENDUETAN ETA/EDO LEHIAKETETAN. Araudi hau hiru lurraldeetako federazioekin batera idatzia eta Eusko Jaurlaritzaren Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak onartua da.

Donostia, 2021eko iraila

GIPUZKOAKO FUTBOL FEDERAZIOA
FEDERACION GUIPUZCOANA DE FUTBOL


Iñigo Letamendi Artetxe
Idazkari Nagusia-Secretario General